

BERDINTASUN POLITIKA

IK4-Ikerlanen gure pertsona taldearen baitan hainbat esparrutan berdintasuna bultzatzeko konpromisoa dugu.

Berdintasuneko, kontziliazioko eta erantzunkidetasuneko proiektuak Etorkizuna Eraikiz ekimenaren baitan indartutako proiektuak dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak ekimen hori bultzatu nahi du lan eta enpresa esparruan gizon eta emakumeen berdintasunean aurrera egiteko, lurraldeko enpresen espezifikotasuna oinarritzat hartuta. 2016. urtean, 10 proiektu pilotu jarri zituzten abian eta aurten beste 10 enpresa elkartu dira. IK4-Ikerlan izan da horietako bat.

Proiektua gure lankidetzaren balioaren baitan sartu behar da; izan ere, gure bokazioarekin bat datorren kalitate profesionala eta bizi kalitatea eskaintzen dizkigu.

